

III. ERANSKINA: TITULU OFIZIALEN AKREDITAZIOA BERRITZEKO BISITA BIRTUALA EGITEKO PANELAREN AGENDA PROPOSAMENA

TITULU OFIZIALEN AKREDITAZIOA BERRITZEA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, 27 bis artikuluan, ezartzen du titulu ofizialen akreditazioa berritzeko prozedura orokorrerako bisita unibertsitatetik kanpoko adituek egin behar dutela. Bisita hori egiteko ondoren proposatzen den formatu birtuala, salbuespenez, aplikatuko da SARS-COV-2 koronabirusak eragiten duen pandemiak gaur egun duen egoera dela eta.

UNIBERTSITATEA:

TITULUA/K:

Unibertsitateak bisita egiteko izendatutako pertsona:

Unibasqeko taldea:

Presidentea:

Ikasle bokala:

Bokal akademikoa:

Bisita-idazkari teknikoa: [\(Unibasq-eko langileak\)](#)

Hala balegokio, kalitatean aditua den pertsona: [\(KBS-ren ezarpenaren ziurtagiria \(AUDIT\) eta Akreditazioa batera berritzen badira\)](#)

Formatu birtualean egiteko kontuan izan beharreko alderdiak: saioko bi gela izango ditugu, lehenengoarekin hasiko gara eta bigarreanean, hurrengoarentzat itxaron-gela zein elkarrizketa gela izango da; aldi berean, 1. gela izango da hirugarren taldearentzat itxaron-gela eta elkarrizketa gela eta honela jarraian.

Unibertsitateak izendatutako pertsona eta bisita-paneleko idazkari teknikoa koordinatuko dira bisita birtuala aurreikusitako agendaren arabera egin dadin.

Unibasqek, taldeko idazkari teknikoaren bidez, agenda-proposamena bidaliko dio Unibertsitateari. Unibertsitateak, bisita baino lau egun lehenago, elkarrizketetan parte hartuko duten pertsonen berri emango dio bisita-panelari, agenda beteta helaraziz.

Unibertsitateak bisita-panelaren eskura jarriko du lineako audientziak egiteko baliabide informatiko baterako sarbidea (esteka batekin eta sarbide-gako batekin). Unibertsitatea arduratuko da informazio hori bisitan parte hartuko duten pertsonengana helarazteaz. Proposatzen den soluzio informatikoak baldintza tekniko konplexurik ez izatea eta nabigatzaile erabilienekin erabili ahal izatea gomendatzen da, instalaziorik egin beharrik gabe. Halaber, gomendatzen da lineako elkarrizketetarako erabiltzen den soluzio informatikoak itxaron-gela bat izatea, audientzietan parte hartuko duten pertsonen, plataforman sartzeko direnean, zuzenean sartzeko aukera izan dezaten. Elkarrizketetan parte hartuko dutenei gomendatzen zaie, elkarrizketa hasteko aurreikusitako ordua baino 5-10 minutu lehenago abiarazteko konexioa. Unibertsitateak izendatutako teknikariak bilera-gelara dagokion unean sartzeko baimena emango die. Nolanahi ere, bisita bakoitzak bisita-taldearen idazkari teknikoa izango du, egon daitezkeen gorabeherak kudeatzen laguntzeko.

Komeni da agenda bisita-panelaren eta unibertsitatearen artean adostuta egitea, baina bisita-panelak elkarrizketak norekin izan nahi dituen hautatzeko aukera du. Unibertsitateak titulu bakoitzean eskatzen diren

talde guztien presentzia ziurtatu beharko du. Unibertsitateak bisita-panelak eskatzen dituen kolektiboetako pertsonak hautatuko ditu eta bilera birtualak behar bezala antolatuko ditu. Nahiz eta, pertsona batzuek zenbait eginkizun edo erantzukizun bete ditzaketen, oro har, hobe da pertsona bakoitzak elkarrizketa bakar batean parte hartzea. Unibertsitateak gomendatzen du gehienez ere lau pertsonak parte hartzea elkarrizketa bakoitzeko.

Elkarrizketek 30-45 minutuko iraupena izango dute, elkarrizketatutako pertsonen eta ebaluatu beharreko tituluen kopuruaren arabera. Elkarrizketa bakar batek ere ez luke 45 minutu baino gehiago iraun behar. Saioen artean, bisita-panelak 15 minutu izango ditu informazioa bateratzeko eta hurrengo saioa prestatzeko. Agendan ezarritako ordutegia betetzea eskatzen da, adierazitako denbora-tarteak gainditu gabe.

Elkarrizketetan, bisita-panelaren kideak eta elkarrizketatuak behar bezala identifikatu beharko dira, izen-deiturak eta kargua edo lotura adierazita, bai bisita-panelaren, bai ebaluatu beharreko titulazioan. Saio bakoitzaren hasieran, presidenteak elkarrizketak ez direla grabatuko jakinaraziko die parte-hartzaileei. Norbaitek aukera hori aktibatzen badu, presidenteak baimenduta ez dagoela adieraziko dio eta desaktibatu egingo da.

Elkarrizketa bakoitza amaitu baino 10 minutu lehenago, presidenteak hitz egiteko txanda irekiko du bertaratutakoaren artean, parte-hartzailearen batek iruzkinen bat egin nahi badu ere, eta nahi duen pertsona orok parte hartu ahal izango duela segurtatuko da.

Agentziarekin behar bezala adostutako salbuespenetan izan ezik, bisita-panelak ez du arretarik jarriko titulazioek osasun-larrialdiko salbuespenezko egoeraren eta Covid-19 pandemiak eragindako alarma-egoeraren ondorioz egin dituzten salbuespenezko egokitzapenetan.

Aldez aurretik bidali ez badira, eskatutako ebidentziak bisita-panelaren eskura jarri behar dira.

Bisita-panelak hala baderitzo, instalazioetara ibilbide edo bisita birtuala egiteko beharra ezar dezake. Kasu horietan, instalazioak bisitatzea adostuko da, agintari eskudunek horretarako baimena ematen badute.

Bisita-panela bikoteka banatu ahal izango da, egoki baderitzo, denbora hobeto kudeatzeko. Kontuan izan beharko da hori lineako konexiorako erabiltzen den baliabide teknikoak behar bezala funtziona dezan.

Unibertsitateak behar bezala jakinaraziko du audientzia publikoa (adibidez, irakasle guztiei, AZPkoei eta ebaluatutako titulazioetako ikasleei zuzendutako zirkular baten bidez) eta tituluarekin zerikusia duten eta agendan finkatutako elkarrizketetara deitu ez den pertsona guztiak konektatu ahal izango dira, edo Unibasqen haien iritzia utzi (posta elektronikoa: azter@unibasq.eus) bisita egin baino 48 ordu lehenago. Bestalde, Unibasqek audientzia publikoak iragarriko ditu sare sozialen bidez (Twitter, adibidez).

1. eguna: Data		
Konexiorako lotura:		
Ordutegia	Saioa	Parte-hartzaileak (Unibertsitatea:)
09:00 09:15	Bisita-panelaren konexioa Unibertsitateko bisitaren arduradunarekin	
09:15 10:00	Elkarrizketa <u>Zuzendaritza Taldea eta Arduradunak 1. titulua</u>	1.- 2.- .
10:15 11:00	Elkarrizketa <u>Koordinatzailea eta Irakasleak 1. titulua</u>	1.- 2.- .
11:15 12:00	Elkarrizketa <u>Doktoregaiak eta Egresatuak 1 titulua</u>	1.- 2.- .
12:00 12:30	Elkarrizketa <u>AZP</u>	1.- 2.- .
12:45 13:30	Elkarrizketa <u>Enplegatzaileak 1 titulua</u>	1.- 2.- .
14:30 17:30	Bisita-panela bateratzea Jasotako informazioa eta ebidentziak partekatzea, galdera guztiak argitu direla ziurtatzea eta bisita-txostena idaztea	
2. eguna:		
Konexiorako lotura:		
Ordutegia	Saioa	Parte-hartzaileak (Unibertsitatea:)
09:00 09:15	Bisita-panelaren konexioa Unibertsitateko bisitaren arduradunarekin	
09:15 10:00	Elkarrizketa <u>Zuzendaritza Taldea eta Arduradunak 2. titulua</u>	1.- 2.- .
10:15 11:00	Elkarrizketa <u>Koordinatzailea eta Irakasleak 2. titulua</u>	1.- 2.- .
11:15 12:00	Elkarrizketa <u>Doktoregaiak eta Egresatuak 2. titulua</u>	1.- 2.- .
12:00 12:30	Elkarrizketa <u>AZP</u>	1.- 2.- .
12:45 13:30	Elkarrizketa <u>Enplegatzaileak 2. titulua</u>	1.- 2.- .
14:30 17:30	Bisita-taldea bateratzea Jasotako informazioa eta ebidentziak partekatzea, galdera guztiak argitu direla ziurtatzea eta bisita-txostena idaztea	

3. eguna:

Konexiorako lotura:

Ordutegia	Saioa	Parte-hartzaileak (Unibertsitatea:)
09:00 09:15	Bisita-panelaren konexioa Unibertsitateko bisitaren arduradunarekin	
09:15 10:00	Elkarrizketa <u>Zuzendaritza Taldea eta Arduradunak</u> 3. titulua	1.- 2.- .
10:15 11:00	Elkarrizketa <u>Koordinatzailea eta Irakasleak</u> 3. titulua	1.- 2.- .
11:15 12:00	Elkarrizketa <u>Doktoregaiak eta Egresatuak</u> 3. titulua	1.- 2.- .
12:00 12:30	Elkarrizketa <u>AZP</u>	1.- 2.- .
12:45 13:30	Elkarrizketa <u>Enplegatzaileak</u> 3. titulua	1.- 2.- .
14:30 17:30	Bisita-panela bateratzea Jasotako informazioa eta ebidentziak partekatzea, galdera guztiak argitu direla ziurtatzea eta bisita-txostena idaztea	
17:30 18:30	Audientzia publikoa	